



Erronkaren deskribapena

DomusVik (Geravi, SAU) planteatutako erronkak izenburu hau du: **"Nola hobetu egoitzetako erorikoen iragarpena eta prebentzioa, teknikoki eta ekonomikoki jasagarria den konponbide batekin, eskalagarritasuna lortzeko?"**

Testuingurua

Adinekoen osasun eta ongizaterako arrisku garrantzitsuenetako bat, etxean nahiz egoitza-zentro batean bizi, **erorikoena da**. Egoitza-zentroetako pertsonen profila, batez ere, pertsona hauskorrena eta hainbat mendetasun-maila dutenena da, eta kolektibo bereziki zaurgarri bihurtzen ditu horrek. Profil horietan erortzeko arriskua handiagoa izateaz gain, eroriko horiek eragin handia izan dezakete egoiliarren osasun fisiko eta psikologikoan.

DomusVik adineko pertsonentzako eta desgaitasuna dutenentzako arreta espezializatua eskaintzen die 37.000 pertsonari, bai eta osasun mentalekoa ere, ia 200 zentrotan. Gainera, etxeko zaintzan espezializatutako unitateen bidez (etxez etxeko laguntza-zerbitzua eta telelaguntza-zerbitzua) 109.000 pertsonari ematen die etxeko arreta. DomusVik **erorikoak eta lotutako arriskuak** murrizteko hainbat modu landu dira eta lantzen jarraitzen da. Gainera, egoitza-zentroak kudeatzeko (EGK) euren plataforma dute, esku-hartze sozialen eta sanitarioen kudeaketa barne, baita historia soziosanitarioarena eta egoiliarren ibilbide klinikoarena ere. Plataforma horretan honako datu hauek gordetzen dira, besteak beste:

- Balorazio-eskalak (propioak eta estandarizatuak): sanitarioak, kognitiboak, psikosozialak, mugikortasunekoak, etab.
- Bizi-konstanteen irakurketen historia (pultsua, tentsioa, pisua, tenperatura, oxigenoa odolean, etab.).
- Gizarte- eta osasun-arloko profesionalen txostenak (gizarte-lana, medikuntza, erizaintza, terapeutak, etab.).
- Diagnostikoak eta zainketa-planak.
- Medikazioa.
- Gertaera garrantzitsuen erregistroak (erorikoak, ultzerak, analisiak, etab.).

Balorazioaren emaitza gisa, **banakako zainketa-planak** egiten dira, eta, kasu jakin batzuetan, erortzeko arriskua murrizteko jarduera terapeutikoak barne hartzen dituzte.

Bestalde, sentsoreetan oinarritutako **irtenbide teknologikoak** inplementatu dira erorikoak hautemateko eta ahalik eta azkarren erreakzionatu ahal izateko: erorikoak hautematen dituzten eskumuturrekoak, mugimendu-sentsoreak, presio-sentsoreak, etab. DomusVik hainbat modelo eta fabrikatzaile ditu, sentsore horiek zentroetako dei-sistemekin integratuta baitaude, eta horiek ere askotarikoak baitira.

Gainera, **prebentzio-ekintzak** egiten dituzte, hala nola arriskua murrizteko terapiak eta ariketak, egoiliarrei egindako balorazioen arabera. Hala ere, aipatutako neurriak ezarrita ere, oraindik ere badago hobetzeko tarterik erorikoak prebenitzeko/iragartzeko. Orain arte erabilitako irtenbideek, oso erabilgarriak direla frogatu den arren, muga batzuk dituzte.



Terapiak prebentzio-ekintzak dira eta eskalagarriak, baina horiei ahalik eta etekin handiena ateratzeko, arriskuko pertsonak identifikatu behar dira. Erortzeko arriskua identifikatzea, eragile askoren mende dagoenez, ez da beti erraza.

Teknologiari dagokionez, erorikoak hautemateko eskumuturrekoak erreminta errektiboak dira, azkarrago erreakzionatzeko aukera ematen dutenak, horien ondorioak eta ondorengo oneratzeko denbora minimizatuz. Geletako sentsoreek aukera ematen dute arriskuak hautemateko erorikoa gertatu aurretik, baina mugak dituzte eraginkortasunari eta eskalagarritasunari dagokienez (irtenbide eraginkorragoek oso kostu handiak dituzte).

Arrazoi horiengatik, **urrats bat harago joan nahi da egoitzetako erorikoen iragarpenean eta prebentzioan.**

Informazio gehigarria:

Alderdi interesdunak

Erronka horretan parte hartzen duten eragile nagusiak, eta, beraz, irtenbidea aurkezterakoan kontuan hartu beharreko eragile interesgarri guztiak ordezkatzen dituztenak, **adinekoak dira**.

Pertsona horien profila, batez ere, 1. eta 2. mailako mendetasun-mailak dituzten egoiliarrena izango da; halakoak dira pilotua egingo den zentroko egoiliarren % 50 inguru. Erabiltzaile horiek plaza publikoen edo pribatuen titularrak izan daitezke, eta normalean 4 edo 5 esku-hartze mediko jasotzen dituzte hilean. Eta, gainera, 5 sendagai edo gehiago hartzen dituzte normalean, eta horietako batzuek erortzeko arriskua areagotu dezakete. Erortzeko arriskua adinarekin ere handitzen da, eta handiagoa da emakumeen artean gizonen artean baino.

Garrantzitsua da nabarmentzea, nahiz eta erorikoen % 20k soilik izan ohi dituzten ondorioak, garrantzitsua dela erorikoen gainean jardutea, bai haien kopurua bai ondorioak dituzten erorikoen ehunekoa murrizteko.

Egoitzetako pertsonekin batera, aukera horren eragile eta onuradun nagusietako bat **familiak** dira, senideen ongizatea bermatuko duten zainketarik onenak espero baitituzte. Gainera, familien gogobetetzea zuzenean lotuta dago emandako zainketekin, eta erorikoek oso eragin kaltegarria dute egoiliarren osasunean.

Eragindako beste eragile bat **osasan-sistema publikoa** da. Erorikoek, batzuetan, ospitaleratzeak ekar ditzakete, eta horrek, egoiliarren ongizatean eragin kaltegarria izateaz gain, kostu bat dakar osasan-sisteman. Erorikoen kopurua eta larritasuna murrizteak osasan-sistemari lotutako kostuak murrizten lagunduko du.

Egoitzetako profesionalak ere eragile garrantzitsuak dira. Eroriko-arriskuak automatikoki hobeto hautematea ahalbidetzen duen irtenbide batek bere zereginak optimizatzea eta arrisku horiei lotutako buru-karga murriztea ekar dezake.



Beharrak

DomusViren beharra da **irtenbide eskalagarri bat aurkitzea, beren zentroetan bizi diren pertsonak erortzeko arriskua aurreikustea ahalbidetuko duena, erorikoen kopurua murrizteko prebentzio-ekintzak gauzatu ahal izateko.**

Bete beharreko premia nagusia da, beraz, irtenbideak **egoitzetako erorikoen kopurua murrizten laguntzea, baita ondorioak dituzten erorikoen ehuneko ere, prebentzio eta iragarpen ikuspegia aplikatuta, erreaktiboa baino gehiago.** Erorikoen kopurua murriztuz, egoiliarren osasuna eta bizi-kalitatea hobetuko dira, eta, ondorioz, baita zerbitzuen kalitatea eta bezeroen gogobetetasuna ere. Gainera, DomusVi bilatzen duen irtenbidearen alderdi garrantzitsuenetako bat da irtenbide hori eskalagarria izatea.

Pilotua **DomusVi Ribera zentroan** egingo da. **Bilboko erdigunean (Alde Zaharra)** dago eta 191 plaza ditu, 70 logela bikoitz eta 51 banakotan banatuta, 5 solairutan. Erronkaren bidez lortu beharreko helburua, irtenbideak arrakasta badu, **DomusViren 140 egoitza-zentroetara eramatea da. Zentroen arteko heterogeneotasuna** (tamainari, egiturari, antolaketari eta abarri dagokienez) **eskalagarritasunerako beste erronka bat da.**

Eskalagarritasun hori hainbat modutan lor daiteke. Irtenbideak gailuak hedatzea eskatzen badu, horiek kostu txikia izan behar lukete (edo eskalaren arabera murriztu daitekeena). DomusVin dituzten sistemak eta tresnak ahal den neurrian aprobetxatzeko irtenbideak ere planteatu litezke. DomusViren zentro eta egoiliar kopuru handia dela eta, dagoeneko eskuragarri daude aztertze teknologia eta datu ugari ("Aurrekariak" atalean deskribatuak). Kasu horretan, irtenbideak beti errespetatu beharko du datu pertsonalak babesteari buruzko legeria.

Irtenbideak, halaber, familiek zerbitzuekiko duten gogobetetasuna hobetzen lagunduko du, baita erorikoaren ondoriozko ospitaleratzeari lotutako buru-karga eta kontziliazio-arazoak arintzen ere.

Onura gehigarri gisa, zainketak hobetzeak DomusViren irudia indartzen lagunduko du, adinekoen arretaren sektorean erreferente gisa, enpresa berritzaile gisa ez ezik, baita bere zainketen kalitateagatik eta egoiliarren premietara pertsonalizatzeagatik ere.

Helburuak

Orientabide gisa, honako taula hau sartu da, eskatutako beharrizan funtzionalak jasotzen dituenak. Beharrizan funtzional horiek betekizuntzat kalifikatu dira edo garrantzi-mailaren arabera haztatu dira, 3 mailarik baxuena eta 9 mailarik altuena izanik:

Aldagaia	Beharrizan funtzionala	Haztapena
	<i>1.1 Egoiliar bakoitzarentzat eroriko-arrisku jakin bat kalkulatzeko aukera ematen du</i>	<i>Betekizuna</i>

1. Irtenbideari esker, erortzeko arriskua iragar daiteke.	1.2 Erortzeko arriskuaren kalkuluak egoiliarri lotutako hainbat aldagai hartzen ditu kontuan	8
	1.3 Hautemandako arriskuaren berri ematen die profesionali erabakiak hartzen laguntzeko	Betekizuna
	1.4 Analisisiko hautematea denbora errealean edo erdi-errealean egiten da (egunero, adibidez)	8
2. Irtenbideak erabakiak hartzen laguntzeko tresnak ematen ditu	2.1 Aukera ematen du profesionalak arriskuaren arabera aplikatu beharreko esku-hartze prebentibo batzuk definitzeko.	7
	2.2 Prebentziozko esku-hartzeak eta horiek aplikatzeko arauak (hautemandako arriskuen arabera) profesionalak konfiguratu ditzakete.	7
	2.3 Arau horiek aplikatuz gero, esku hartzeko proposamen automatikoak egingo dira, egoiliarren profilarren eta hautemandako arrisku-mailaren arabera.	5
	2.4 Irtenbideak aukera ematen du (biderik egokiena erabiliz) gomendioak profesionali jakinarazteko (haiek erabakitzen dute zein aplikatu eta, ondorioz, zaintza-plana egokitzen dute).	5
	2.5 Balizko esku-hartzeei buruzko ikuspegi berriak dakartzan erorikoaren arazoari buruzko ezagutza baloratuko da	3
3. Egungo sistemekin integratzea	3.1 Soluzioak egungo sistemetako datuak jasotzeko aukera izan behar du (gutxienez EGK-koak)	Betekizuna
	3.2 Irtenbideak informazioa jaso dezake merkatuan dauden monitorizazio-gailuetatik	3
	3.3. Irtenbideak elkarrengarria izan behar du, etorkizunean integratzeko bidean aurrera egin ahal izateko	Betekizuna
4. Irtenbideak erraz eskalatzeko modukoa izan behar du	4.1 Irtenbidearen diseinuak zentroen kopuruaren hazkundeak kostuen hazkunde proportzionala ez ekartzea ahalbidetzen du	Betekizuna
	4.2 Irtenbideak malgua izan behar du, hazi ahal izateko edo zentroen beharretara egokitu ahal izateko (egoiliarren aldaketak, logelaren aldaketa, etab.)	8
5. Irtenbideak datuen pribatutasunari eta segurtasunari buruzko legeria bete behar du	5.1 DBAO betetzea	Betekizuna
	5.2 Datuak modu seguruan gorde eta garraiatu behar dira beti	Betekizuna
	5.3 Datu eta funtzionaltasunetarako sarbide-profilak definitzea ahalbidetu behar du	9
	5.4 Segurtasun Eskema Nazionala betetzea	3

6. Irtenbidearen erabilgarritasunak kontuan izan behar ditu inplikaturako profilak	6.1 Egoiliarrekiko elkarrengina dakarren irtenbidearen edozein elementuk erraza izan behar du eta zaurgarritasun handiagoko profilak kontuan hartu behar ditu	5
	6.2 Irtenbidearen profesionalentzako erabiltzaile-esperientziak (UX) kontuan izan behar ditu horretan diharduten langileen profilak (osasun-eta gizarte-profesionalak)	5

Irismena

Enpresa irabazlearen eta DomusViren artean **garatutako pilotuaren bidez, proposatutako irtenbidearen bideragarritasuna baliozkotuko da, egiazko ingurune batean eta benetako erabiltzaileekin.**

Pilotuaren helburua da erakustea **irtenbidea gai dela erorikoen kopurua eta osasunean ondorioak dituzten erorikoen ehunekoak murrizteko, erorikoen arriskua iragarritz, arrisku hori murrizteko prebentziozko esku-hartzeak planifikatu eta inplementatu ahal izateko.** Pilotua **DomusVi Ribera egoitza-zentroan egingo da, 20.000 euroko aurrekontuarekin.** Pilotuan parte hartuko duten egoiliarren kopurua adierazitako profilen hautaketaren arabera izango da, baina gutxi gorabehera 10-20 erabiltzaile izan daitezkeela uste da. Pilotuaren emaitza ona bada, berrikuntza hori taldeko zentro guztietara eramatea da helburua.

DomusVi Espainiako enpresa liderra da adinekoren egoitzen sektorean. Gaur egun 140 zentro daukate, eta haietan 18.000 pertsona baino gehiagori ematen zaie zerbitzua. Bizkaiko egoitza-zentroez gain, beste 7 dituzte Euskadin, eta zentroak dituzte probintzia guztietan (Ceutan eta Melillan izan ezik).



Adibidea: erabilera-kasua

Begoñak 83 urte ditu, alarguna da eta bakarrik bizi zen etxean, harik eta, duela hilabete batzuk komunean erorita aldaka kaltetu ondoren, mugikortasuna murriztu zaion arte. Familiak, bere egoerak okerrera egin duelako eta beste eroriko bat gertatzeko arriskuagatik kezkatuta, erabaki du berarentzat onena egoitzan sartzea dela, eta bertan emango dizkiotela behar dituen zaintzak.

Egoitzan sartzean, zentroko gizarte- eta osasun-profesionalek hasierako balorazioa egin diote, balorazio mediko osoa eta arriskuak ebaluatzeko hainbat eskala eginez. Informazio hori guztia EGK plataforman erregistratzean, tresnak erortzeko arriskua esleitu dio Begoñari, eta arriskuak murriztu ditzaketen zenbait esku-hartze prebentibo iradoki ditu. Egoitzako profesionalek zainketa plan pertsonala sortu dute, tresnak identifikatutako arriskua kontuan hartuta eta tresnak proposatutako esku-hartze batzuk txertatuta (ariketa pertsonalizatuena saioak eta parametro biopsikosozial jakin batzuen aldizkako berrikuspenen plana barne).

Zentroan hilabete batzuk eman ondoren, Begoñak aldaketa batzuk izan ditu bere ohiko patroietan. Tresnak aldian-aldian aztertzen ditu EGKn erregistratutako datuak, eta haren bizi-konstanteen neurrien eta portaeraren azterketatik (altxatzeko ordua, jardueretan parte hartzea, eta abar), tresnak aldaketa bat hauteman du Begoñaren eroriko-arriskuan, eta egoitzako zainketa-taldeak aldaketa horren berri ematen duen jakinarazpen bat jaso du. Horren ondorioz, eta tresnaren gomendioetan oinarrituta, profesionalek Begoñako zaintza-plana aldatzea erabaki dute, jarraipen jarraituagoa eginez eta jasotzen duten arreta indartuz. Plan berriari jarraituz hiru hilabete igaro ondoren, Begoñak erortzeko duen arriskuak behera egin du berriro.

Aldi berean, Begoñako solairu kide bati, Aitorri, patologia berri bat diagnostikatu diote, medikazio-aldaketa bat dakarrena. Medikazio berri hori erortzeko arriskua handitzen duen aldagai posible gisa identifikatuta dago. Plan farmakologiko berria EGKn erregistratzean, zentroko mediku-taldeak jakinarazpen bat jaso du erortzeko arriskua handitu dela jakinarazteko, eta mezuak Aitorren zainketa-planean aldaketa batzuk egitea iradokitzen du, arrisku hori arintzeko.

Tresna berriari esker, urte amaierako laguntza-adierazleak aztertzean, zentroko egoiliar bakoitzeko erorikoen kopuruak behera egin duela erakusten dute, baita ospitaleratzeen kopuruak eta ospitaleratze horien iraupenak behera egin dutela ere.

Erreferentziak

DomusVi Ribera egoitza: www.domusvi.es/residencias-ancianos/bizkaia/ribera



Geria-TIC proiektua, DomusViren parte-hartzearekin, gernu-inkontinentziari, erorikoen prebentzioari eta adinekoen loaren kalitateari lotutako gaiak hobetzeko. www.geriatric.udc.es/

SAFEinBED proiektua, DomusVi eta Gradienten proiektua, monitorizazio jarraitu baten bidez, intrusiboa izan gabe eta pribatutasuna errespetatuz, erorikoa jasateko, presio-ultzera bat garatzeko edo asaldura- edo eldarnio-gertaera bat jasateko arrisku handia duten pertsonen lesio larriak saihesteko sistema bat garatzeko. www.gradient.org/proyectos/safeinbed/

Erorikoak prebenitzeko esku-hartzeak:

- Adinekoen oreka hobetzea eta erorikoak prebenitzea www.domusvi.es/residencias-ancianos/a-coruna/san-lazaro/noticias/mejorar-el-equilibrio-y-prevenir-caidas-en-personas-mayores
- Erorikoak prebenitzeko hitzaldia www.domusvi.es/residencias-ancianos/sevilla/alcala-de-guadaira/noticias/charla-prevencion-de-caidas
- DomusVi Alcala de Guadaír erorikoen prebentzioa www.domusvi.es/residencias-ancianos/sevilla/alcala-de-guadaira/noticias/prevencion-de-caidas-domusvi-alcala-de-guadaira
- Medikamentuak eta erortzeko arriskua adineko pazienteetan: farmazia komunitarioaren esku-hartzea, idus.us.es/bitstream/handle/11441/143782/GIL%20GAGO%2C%20EMILIO.pdf?sequence=1&isAllowed=y